

COVID-19aren inpaktua EAEko kultura-sektorean

Krisiaren Behatokia

Itxiera-txostena

2022ko iraila



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura

AURKIBIDEA

1. Aurkezpena	3
2. Panoramika pandemiak iraundako bi urteren eta sei olatuen ondoren	5
3. Pandemiaren eta hartutako neurrien aurreko erreakzioak	9
4. 2021eko diru-sarreraren eta jardueraren faktore baldintzatzaileen aurreikuspena	21
5. Eskariaren joerak	29
6. Azken gogoetak	31
7. I. eranskina: Metodologia	33
Arteen eta Industrien eta Sormen-industrien estatistika	33
"Enpresa-konfiantzaren adierazleak" inkesta	36
8. II. eranskina: Emaidza xehatuak.....	37

1. AURKEZPENA

Kulturaren Euskal Behatokiak [Krisiaren Behatokiaren](#) itxiera-txostena aurkezten du. Krisiaren Behatoki hori COVID-19ak kultura-arlo eta -sektoreetan izan duen inpaktuaren jarraipena eta azterketa egiteko baliabidea da. *Ad hoc* baliabide horren esparruan, inpaktuari eta orientazio estrategikoari buruzko hainbat txosten egin ziren. Horietako bi argitaratu ziren: [hasierako txostena](#), mugarri izan zena azkar egin zelako eta pandemiaren hasierako inpaktua kuantifikatzeko kalkuluak eta analisiak egin zituelako (2020ko maiatza); eta [bigarren txostena](#), pandemiaren bilakaeraren jarraipena egitea zuena helburu (2020ko abuztua). Pandemiari eusteko aldarrikatutako neurriak luzatu egin zirenez (2022ko otsailaren 11ko Dekretuaren bitartez, osasun-larrialdiko egoera amaitu arte), orain arte ezin izan da itxiera-txostena egin.

Zoritxarrez, pandemia espero zena baino gehiago luzatu zen, bi urtez zehazki. Prozesu luzea eta gogorra izan zen, irekiera partzialez eta euste-neurriez betetakoa. Prozesu horren ondorioz, jardueren itxierak zuzenean gehien eragin dioten sektoreetako baten susperraldia oztopatu da.

Enpresei, enpleguei edo gastu publikoari dagokienez inpaktua kuantifikatzeko datuak falta baditugu ere (laster ezagutaraziko dira), txostenak 2022ko lehen hiruhilekoan eskuragarri dauden emaitzak aurkezten ditu. Sektorearen egoera testatzeko erabilitako formula hau izan da: agenteak hartzen ari ziren neurriekin lotutako galderak sartzea Behatokiaren ohiko inkestetan. Informazioa biltzeko bide horren alde egiteko bi arrazoi daude: baliabideak eraginkortasunez erabiltzea, batetik, eta testuinguru ziurgabe eta ezegonkor batean pandemiari buruzko galdetegiak betetzeaz nekatuta zegoen sektore batekiko kontsiderazioa, bestetik.

Hasteko, COVID-19aren ondoriozko egoerari buruzko bi galdera sartu ziren [Arteei, kultura-industriei](#) eta [sormen-industriei buruzko estatistikan](#). Edizio horretako informazioa 2019. urteari buruzkoa bada ere, landa-lana pandemia betean egin zen (2020ko bigarren seiuhilekoan eta 2021eko lehen hiruhilekoan); hortaz, pandemiarekiko izaten ari ziren erreakzioei eta 2021era begira zituzten aurreikuspenei buruz galdetu ahal izan zitzaizen kultura- eta sormen-agenteei. 1.055 agentek hartu zuten parte, 701 arte eta kultura-industrietakoak eta 354 sormen-industrietakoak.

Bigarren, egoerarekin eta enpresa-konfiantzaren adierazleen (2021eko irailean argitaratuak) panelean jasotako krisiari aurre egiteko neurriekin lotutako bi galdera zehatzi buruzko datuak ere aurkezten dira. Panelean 139 agentek hartu zuten parte, 68 [arte eta kultura-industriakoak](#) eta, sail horretan berritasun gisa, [sormen-industriako](#) 71 agentek. Bi iturrien xehetasun metodologikoak I. eranskinean ikus daitezke.

Kultura- eta sormen-ehunaren alderdi profesionalak zuzenean emandako datuok oinarri hartuta, jarraian aurkezten den txostena sei zatitan dago banatuta. Lehenengoan, pandemiari eusteko neurriak laburbiltzen dira, sektore guztientzat aldarrikatu zirenak; jakina denez, kultura-bizitzan eragin sakona izan zuten. Ondoren, itxieren, edukieren mugen eta arau higieniko-sanitarioen egoera horrekiko erreakzioak aurkezten dira, bai eta kultura- eta sormen-sektoreak beren erakundeetan ezartzen joan ziren neurriak ere. Hirugarren kapituluan, agenteen diru-sarreraren aurreikuspenak eta, haien iritziz, 2021ean jarduera baldintzatuko zuten faktoreak aztertuko dira. Laugarren kapituluan, 2020an eta 2021ean kultura-ohituren arloko joerak aipatzen dira. Txostenaren amaierako kapituluan, pandemiatik ikasitakoari buruzko gogoetak egiten dira.

2. PANORAMIKA PANDEMIAK IRAUNDAKO BI URTEREN ETA SEI OLATUEN ONDOREN

Pandemia bi urtez luzatu denez, atal honetan laburbiltzen da Euskadin hartutako neurrien sekuentzia. Helburua ez da gobernu zentralak eta euskal gobernuak onartutako dekretu guztiak sakon aztertzea; aldiz, asmoa da kultura- eta sormen-sektoreetan eragin zuzena izan zuten murrizketa- eta prebentzio-neurriak laburtzea. Pandemiaren krisiaren deriba ikusita, ez da erraza jasandako olatuen eta murrizketen segidan kokatzea. Xehetasun gehiago izateko, Eusko Jaurlaritzak 2022ko martxoan argitaratutako [Memoria](#) kontsulta daiteke.

COVID-19aren pandemian neurri asko hartu ziren kutsatzeei eutsi ahal izateko. Eusko Jaurlaritzak guztira 36 agindu eta dekretu eman zituen 2020ko martxoaren 13tik (Euskadiko Herri Babeseko Plana aktibatu zen unea alerta epidemiologikoari aurre egin ahal izateko) 2022ko otsailaren 11ko Dekretura arte (osasun-larrialdiko egoera amaitutzat jo zenera arte). Agindu eta dekretu horiei Espainiako Gobernuak emandako errege-dekretuak gehitu behar zaizkie, 2020ko martxoaren 14an alarma-egoera deklaratu zenetik. Halaber, oso garrantzitsuak izan ziren laguntza-neurriak, orokorrak zein espezifikoak, administrazio guztiek (Estatukoa, autonomikoa, foralak eta tokikoak) sustatu zituztenak kultura-eta sormen-sektoreetan krisiaren eragina arintzeko.

Martxoaren 14an, 463/2020 Errege Dekretuak alarma-egoera deklaratu zuen; horrek hainbat murrizketa ekarri zituen, hala nola etxeko konfinamendua eta etxeratze-agindua, besteak beste. Konfinamendu zorrotz horrek maiatzera arte iraun zuen, orduan hasi baitzen deseskalatzea eta normaltasun berri deiturikorako bidea. Azkar egiaztatu genuen ez zela horrela izan, eta uztailaren amaiera aldera sumatzen hasi ginen ondoz ondoko hainbat olaturen aldi luzea zetorrela (sei, guztira). Denbora-lerro honetan Euskadin 2020ko maiatz-ekaineko lehen deseskalatzetik aurrera aplikatutako araudi batzuen laburpena egin dugu. Gertakarien antolaketa soilik erakusten da, baina ez da distantzia kronologikoekin irudikatu.

COVID-19aren olatuak, g.g.b. (2020ko mar., aza.; 2021eko ots., api., uzt.; 2022ko urt.)

Txertaketaren hasiera eta amaiera g.g.b.

36/2020 D., urr. 16
38/2020 D., aza. 6

Maskaren derrigorrezko erabilera eremu publikoetan eta erabilera komuneko eremu pribatuetan.

Garbiketa- eta desinfekzio-neurriak
Merkataritza-establezimenduen eta kultura-jardueren eta ikuskizunen itxiera 21:00etan.

Jatetxe eta ostalaritzaren itxiera
Jardueretan gehienez 6 pertsona.

Kultura-ikuskizunetan % 50eko edukiera, 400-600 pertsona gehi. (barn./kanp.)

Diskoteken eta gaueko aisialdiko establezimenduen itxiera

4/2021 D., urt. 22

Pertsonak Euskaditik sartzeko eta irteteko muga.
Gehienez, 4 pertsonako muga-
Ostalaritza eta jatetxeen berririkiera, kanpoan % 50eko edukierarekin.

30/2021 D., eka. 18
33/2021 D., uzt. 7

Merkataritza-, gizarte- eta kultura-jardueren itxiera: 02:00etan
Gehienezko edukiera: % 60
Ekitaldiak barrutietan:
- 600-800 (barn./kanp.)
- Edukiera: 1.600-5.000: 800-1.200 (barn./kanp.)
- >5.000: % 30
Museo eta erakusketa-aretoetako taldeko jarduerak: 10-20 (barn./kanp.)
Ostalaritza eta jatetxe-arloa: % 50 barnealdean. Gehi. 6 pertsona mahai bakoitzean
Euskaltegiak, akademiak, autoeskolak... gehi. 25 pertsona
Diskotekak eta gaueko aisialdia: itxita

2021eko urriaren 6ko Agindua

Merkataritza-, gizarte- eta kultura-jardueren ordutegia: beren araudiaren arabera
Edukierak: % 100, itxietan izan ezik > 5.000 - % 80

47/2021 D., abe. 14

COVID-19aren ziurtagiriaren eskakizuna

5/2022 D., ots. 11

Osasun-larrialdiaren egoeraren amaiera
Euskadin

2020ko ekainaren 18ko Agindua

Pertsonen arteko segurtasun-distantzia
Higiene- eta prebentzio-neurriak
Edukiera: % 60 (gehienetan)

926/2020 ED, urr. 25

Debekuak:
- Zirkulazioa 23:00etatik 06:00etara. (22:00etara Euskadin, 28/2020 D-ren arabera)
- Aut.-erk. arteko joan-etorriak.
- Pertsonen sarrera-irteera muga daiteke aut.-erk. baino eremu geografiko txikiagoetan. (25 udalerritan eragina Euskadin)
- Gehienez 6 pertsonako taldeak

26/2021 D., mai. 31

Establezimenduen itxiera 24:00etan
Aisialdi hezigarriko jarduerak, museoak, etab.
Gehi. 10 pertsona

38/2021 D., irai. 17

Barnealdean maskararen derrigorrezko erabilera
Merkataritza-, gizarte- eta kultura-jardueren itxiera: 03:00etan
Gehienezko edukiera: % 75
Ekitaldiak barrutietan:
- 1.500-1.800 (barn./kanp.)
- Edukiera > 3.000: % 40- % 60 (barn./kanp.)
Ostalaritza eta jatetxe-arloa: % 75 barnealdean. 8-12 pertsona mahai bakoitzean (barn./kanp.)

2021eko azaroaren 16ko Agindua

Neurri desberdinak hamalau egunetan
100.000 biztanleko COVID-19aren 150 kutsatuko tasa metatua zuten udalerrietan.

51/2021 D., abe. 28
2/2022 D., urt. 28

Itxiera: 01:00etan
Edukiera: % 60
Ekitaldiak barrutietan:
- 600-800 (barn./kanp.)
- Edukiera: 1.600-5.000: 800-1.200 (barn./kanp.)
- Edukiera > 5.000: % 50
Gaueko aisialdia, jatetxe-arloa... Debekatuta zutik kontsumitzea, 10 bezero mahai bakoitzeko eta 1,5 metroko distantzia mahaien artean

Balora dezagun nola bizi izan den hori guztia kulturean, bereziki azken hilabeteetan.

Kultura izan da pandemia eusteko neurrien eragina gehien pairatu duten sektoreetako bat, nola garatzen den kontuan izanda: espazio itxietan eta publiko askorekin, edo bestela kalean eta jendetzarekin, distantziak gabe. Zinema-aretoak, antzokiak, museoak, liburutegiak, musika-aretoak, entzunaretoak, jaialdiak, festak... Horiek guztiak kultura-zerbitzu- eta -espazioak dira. Jakina, horietan antolatutako jardueri bete-betean eragin zien pandemiak, bereziki zuzeneko kulturean, edozein modalitate, diziplina eta formatutan. Gauzak horrela, **pandemiari eusteko jarraibideek ikuskizun baten funtsari eragiten diote** (aurrez aurre gozatzea), **baita haren zentzuari ere** (konpainian partekatzea); hortaz, **edukiera, ordutegi, distantzia eta mugikortasunari buruzko arauak inpaktu handia izan dute** horien garapenean urteotan. Salbuetsita geratu dira etxean egiten diren jarduerak indibidualenak, esate baterako, irakurtzea, musika entzutea edo ikus-entzunezko edukia ikustea. Hori dela eta, pandemiaren inpaktua oso sakona izan den arren guztientzat, baieztatu daiteke kultura-erakundearen alde industrialari ez diola zuzeneko aldeari bezain beste eragin, azken horrek guztiak antolakuntza eta baliabideen ikuspuntutik dakarrenarekin.

Nolanahi ere, murrizketekin batera, **administrazio guztiek pandemiaren eragina arintzeko berehalako neurri batzuk jarri zituzten abian**; batzuk, sektore guztietara bideratuak (ABEEEak, autonomoak, laguntza finantzarioak eta neurri fiskalak), eta beste batzuk, berriz, kultura- eta sormen-sektoreei laguntzekoak espezifikoki (aparteko laguntzak, langabeziako prestazio espezifikokoak, aholkularitza-zerbitzuak, BEZ kulturala, kultura-kontsumorako bonuak, kultura-jarduerarako dirulaguntzak...). Horren guztiaren berri eman zen Kriaren Behatokiaren [lehenengo](#) txostenean, 2020ko maiatzean argitaratutakoan.

Berehalako neurri horien ezaugarriak **erantzun azkarra izatea eta talka-plan horietarako partiden zenbatekoa izan ziren**, 2020 ekitaldiko aurrekontu-partidak berrizendatetik etorri zirenak. 2020-2022 aldian, Eusko Jaurlaritzak guztira 13.670.000 euro bideratu zituen kulturaren ehun profesionalen krisiaren inpaktua arintzera (6,3 milioi euro) eta antzokietako eta kontzertu- eta zinema-aretoetako programazioa berraktibatzerako (4,9 milioi euro).

Laguntzak kritikoki baloratzeari esker, administrazioen deialdien artean irizpide komunik ez dagoela ikus daiteke, honako hauek kontuan hartuta: diruz lagun daitezkeen gastuak, haien arteko bateraezintasunak, laguntza jaso dezaketen jardueren arteko aldeak, deialdien nolabaiteko gainjartzea eta onuradunak definitzeko desadostasunak. Agenteek beren diru-sarrerak justifikatzeko izan zituzten zailtasun handienak. Irregularrak, sasoikakoak eta/edo eskasak zirenez, are konplikatuagoa zen, eta balizko unibertsoaren zati bat aurkeztu ere ez zen egin. Uko egin zitzaien eskaeren arazoa baino gehiago, hondoan zegoen gaia hau izan zen: **kultura- eta sormen-ehunaren zati handi bat laguntzen itzalean geratu zela.**

Krisiaren irakurketa positiboa eginez, pandemiak ehun berezi baten josturak azalarazi zituen; ehun hori hauskorra da, haren berezko ezaugarriengatik eta egiten den lanaren izaeragatik, eta urrun dago lan- eta zerga-arloan araututako parametro eta estandarretatik. Guztiok dugu ezaugarri horien berri, baina horien kudeaketa pandemian bereziki zaila izan zen.

Azpimarratu behar da **sektorearen lan- eta egitura-baldintzak hobetzeko beharrizan nabaria** egiaztatu izanari esker, konpromiso bat sortu dela administrazioen aldetik, kultura- eta sormen-arloko lanaren eta jardueren araudia kolektibo horien errealitatera egokitzeko.

Jarraian, sektoreak nola jokatu zuen ikusiko dugu.


3. PANDEMIAREN ETA HARTUTAKO NEURRIEN AURREKO ERREAKZIOAK

Aurrekaririk gabeko krisi baten aurrean, administrazio publikoek berehala erantzun zuten bezalaxe (pandemiak sektorean izandako eragina arintzeko laguntza- eta sostengu-programak abian jarritz), kultura- eta sormen-ehuna ere martxan jarri behar izan zen, murrizketa handieneko garaietan bere jarduerari gutxieneko mailan behintzat eusteko eta deseskalatzea hasi zenean pixkanaka suspertzeko.

Agente gehien-gehienentzat egoera berriaren aurrean erreakzionatzea beste aukerarik ez zen geratu.

Jardueraren egokitzapena COVID-19agatik


1. grafikoa. Erantzun positibo eta negatibo elkarketa. Sektorearen konparazioa




→ **Arteetako eta kultura-industrietako eta sormen-industrietako agenteen % 90ek baino gehiagok COVID-19aren egoerara egokitzeko neurriak jarri behar izan zituzten abian.**

→ Hala ere, 3 puntuko aldea dago bi taldeen artean. Bi sektorek baino ez dituzte % 90etik beherako ehunekoak: diseinua eta hizkuntzaren industriak.

2. grafikoa. Erantzun positiboen eta negatiboen elkarketa. Arteen eta kultura-industrien alderaketa



3. grafikoa. Erantzun positiboen eta negatiboen elkarketa. Sormen-industrien konparazioa



*Kalkuluak tipologia bakoitzaren araberako erantzun guztien gainean egin dira


Interesgarria da aztertzea zer erreakzio eta estrategia izan zituzten. Kriariaren Behatokiaren [bigarren](#) txostenean proposatutako moduan, **jarduerari** eustera bideratutako ekintzak lau estrategia mota posible handiren emaitza dira:

- 1. Arintze-estrategiak:** langileek eta publikoak hartu beharreko neurri higieniko-sanitarioak hartzean eta jardueraren espazioa eta formatua agintariek ezarritako betebeharrak egokitzean oinarritzen dira.
- 2. Suspertze-estrategiak:** jarduera bitarteko digitalera lekualdatzean oinarritzen dira; izan ere, presentzia fisikoari ezarritako murriztapenak saihesten ditu, jarduera bera asko aldatu gabe.
- 3. Egokitze-estrategiak:** jardueraren espazio eta formatuetan aldaketa esanguratsuak egitean oinarritzen dira.
- 4. Berrikuntza-estrategiak:** egiten den jarduera mota eraldatzean oinarritzen dira, jarduera berriak aztertzean.


Hurrenkera horretan, lehenengo biak nahitaezkoak izan ziren jarduerari eusteko edo berrekiteko; azken biek eraldaketa handiagoak dakartzate. Ikus dezagun datuek zer dioten.

Jardueraren egokitzapena COVID-19agatik

4. grafikoa: Jarduera egokitu duten agenteen balio absolutuak. Sektorearen guztizkoa



5. grafikoa: Jarduera egokitu ez duten agenteen balio absolutuak. Sektorearen guztizkoa



*Galdera honetan "Beste batzuk" aukera ere bazegoen (52 agentek aukeratu zuten). Iruzkina gehienak bat datoz hauek aipatzean: telelana, ABEEa, jardueraren murrizketa edo etetea eta jardueraren zerbizuen egokitzapena, batez ere COVID-19ari aurre egiteko protokoloetara.

1. Gehien aplikatutako bi neurriak hauek dira: langileen segurtasun- eta higiene-protokoloak betetzeko nahitaezkoak (554 agente) eta publikoarenak, bigarren (495 agente).
 - Horrenbestez, hasteko, **arintze-estrategiak** ezarri dira, eta horien bitartez jarduerarekin jarraitzen ahalegindu dira baldintza berrietara egokituta. **Adierazi behar da ahalegin handia egin dutela kultura-erakundeek** ildo horretan eta, oro har, **publikoak erantzun ona** eman duela eskatutako osasun-neurrien aurrean. Pandemiak iraundako bi urteotan lana etengabea izan zen; izan ere, lehenengo deseskalatzean inork ez zuen aurreikusten olatuen bilakaera izan zena izango zenik. Edukierak

doitu eta birdoitu egin behar izan ziren, jarduera bertan behera utzi eta berriro programatu behin eta berriro, betiere ziurgabetasun handiko agertoki batean, jarduerari eusteko ahaleginak emaitzak emango zituelako bermerik gabe. Nabarmenezkoa da eskatutako protokoloen arabera zerbitzuak ematen jarraitzeak **arte egiteko modua asko aldatu duela**, zuzeneko emanaldietarako entseguak antolatzenetik hasi eta publikoarekiko harremaneraino.

2. Jarraian, agenteek egindako **egokitzapen digitala** dago (256 agente), momentuko murrizketa nagusiak saihesten dituen bitarteko batean zerbitzuak ematen jarraitu ahal izateko.
 - Hori horrela, bigarren lekuan, **berraktibatze-estrategiak daude**, ohiko **jarduerarekin alderatuta aldaketa handia dakartenak**. Kasu honetan aipatzekoa da orokorrean kultura-jardueraren zati handi batean zuzeneko jarduera presentziala funtsezkoa, eta, beraz, ordezkaezina dela uste den arren, ekintza digital horietako batzuek emaitza ona eman zutela ikusita, ekintza digital horiei eutsi eta indartu egin nahi zituztela etorkizunean. Behintzat inkesta egin zen unean (2020-21). Suposatu behar da pandemiaren aurretik azpiegitura digital irmoa zuten erakundeek aukera gehiago izan zituztela arlo horretan erantzun azkarragoak eta ausartagoak emateko. Horrela, arlo digitalean etxerako lanak eginda izateak jarduera egiten jarraitu ahal izaten lagundu zuen.
3. Hirugarren, eta era hasiberriagoan (192 agente), **jardueraren espazioan eta formatuan eginiko aldaketak** identifikatu dira. Kasu horretan, jarduera bera eraldatzen duten neurriak dira, murrizketak saihesten ahalegindu baino, irtenbide berriak bilatzen dituztenak.
 - Horrenbestez, **jarduera egokitzeko estrategiak ditugu**, emanaldi eta erakusketa publikoetarako bereziki garrantzitsuak direnak.
4. Azkenik, aldaketa sakonenak daude, gutxien egiten direnak. Horien artean dago **jarduera mota aldatzea** (120). Hau da, agenteak ohikoetatik erabat bestelakoak diren jarduerak egitea.
 - Neurri mota horiek **berrikuntza-estrategia** gisa ulertzen dira; jarduera erabat **birformulatzea dakarte** planteamendu disruptiboetatik abiatuta, edo are **negozio-ildo berriak irekitzea**.

Kultura- eta sormen-sektorearen dinamikak antzeko joerari jarraitzen dio, baina azpimarratu beharreko zenbait ñabardurarekin. Batetik, arteak eta kultura-industriek segurtasun- eta osasun-neurriak bete behar izan zituzten nahitaez, eta produktua egokitu eta jarduera aldatu behar izan zuten. Kultura-jardueraren izaerari zor zaio hori; izan ere, pertsona asko mobilizatzen dituzten jardueretara bideratuta daude gehienbat, zuzenean gauzatzen dira eta komunitatean gozatzen ditugu.

Bestalde, ikusi da, bolumen oso txikian bada ere, egokitzeko beharra ez izatea edo ezin egokitu ahal izatea bi aldiz handiagoa dela sormen-industrietan arteekin eta kultura-industriekin alderatuta. Sormen-lanaren indibidualtasuna dago alde horien atzean.

1. taula. Hartutako neurrien konparazioa. (Galderari erantzun dioten agenteen %)

	GUZTIRA	Arteak eta kultura-industriak	Sormen-industriak
Bai, langileen segurtasun- eta higiene-protokoloak betetzeko nahitaezkoak	78,6	81,3	74,0
Bai, bezeroen segurtasun- eta higiene-protokoloak betetzeko nahitaezkoak	70,2	76,3	59,9
Bai, egokitzapen digitala	36,3	34,8	38,9
Bai, produktua egokitzea	27,2	34,3	15,3
Bai, jarduera mota aldatzea (lehen egiten ez nituen edo ez hain sarri egiten nituen jarduerak egiten ditut orain)	17,0	22,1	8,4
Ez, ez da beharrezkoa izan	7,7	5,9	10,7
Beste batzuk	7,4	7,0	8,0
Ez, ezin da egokitzapen nabarmenik egin nire jardueran	3,5	2,7	5,0
Ez, ez daukat nahikoa baliabiderik egokitzapenak egiteko	1,0	1,1	0,8

** Kontsultatu II. eranskina arteen eta kultura-industriren eta sormen-industriren banakapena ikusteko.

Emaitza horiekin, interesgarria da aztertzea zer puntutaraino eragin zuen agenteen diru-sarreraren edo enpleguaren profilak beren egokitzapen-gaitasunean. **Erreakzioak agenteen jarduera motaren arabera izan ziren (alde argia dago jarduera kulturalaren eta sortzailearen artean) bai eta tamainaren arabera ere.** Hori horrela, arte eta kultura-industrietako artean, oro har era batera edo bestera egokitu baziren ere, **diru-sarreraren bolumen txikiena zutenek erreakzionatzeko gaitasun gutxiago izan zutela**

ematen du. Sormen-industrien artean, egokitzapen-ehunekoak txikiagoak dira oro har, eta diru-sarrera gutxien dituztenen tartea erreakzionatu ezin izan zutenen edo erreakzionatu behar izan ez zutenen artean dago (100.000 eurotik beherako diru-sarrerak zituzten agenteen % 30 inguru).

Gauza bera gertatzen da langileen kopuruari dagokionez ere: **egokitzeko behar edo gaitasun txikiena izan dutenak 5 enplegu baino gutxiagoko tartean dagoen profilekoak dira** (% 20 inguru sormen-industrietan).

2. taula: Egokitu diren edo ez diren agenteak, diru-sarreraren eta enpleguaren bolumenaren arabera.

	GUZTIRA		Arteak eta kultura-industriak		Sormen-industriak	
	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai
Diru-sarrerak						
0 - 100.000	% 12,7	% 87,3	% 8,1	% 91,9	% 29,6	% 70,4
100.001-500.000	% 12,5	% 87,5	% 10,4	% 89,6	% 15,5	% 84,5
500.001-1.000.000	% 4,2	% 95,8	% 5,7	% 94,3	% 2,8	% 97,2
>1.000.000	% 7,5	% 92,5	% 4,2	% 95,8	% 10,2	% 89,8
Enpleguak						
0-5 enplegu	% 12,7	% 87,3	% 9,3	% 90,7	% 21,3	% 78,7
>5 enplegu	% 7,8	% 96,1	% 5,6	% 94,4	% 8,9	% 91,1
Guztira	% 11,0	% 89,0	% 8,3	% 91,7	% 15,5	% 84,5

*Ez dira kontuan hartu erantzunen kopurua, gutxienez erantzun positibo edo negatibo bat aukeratu duten agenteen kopurua baizik.

Krisiaren Behatokiaren esparruan pandemiaren hasieran egindako inkestaren arabera (2020ko apirila), agenteen % 44k uste zuten erantzuteko gaitasun txikia zutela sortutako egoerari aurre egiteko, eta % 37,6k uste zuen nahikoa maniobra-tarte zuela. Pertzepzio horretan eragina duten bi aldagai hartu behar dira kontuan: erantzun zuten agenteen profila (heterogeneoa eta profesional autonomo askorekin), eta noiz egin zen, pandemia hasi eta hilabete eskasera egin baitzen, oraindik uste zenean egoera iragankorra izango zela eta


udan gaindituko zela. Geroago ikusi zen krisia espero baino iraunkorragoa eta sakonagoa izango zela, eta ondorioz, erreakzio posible bakarra baldintzetara egokitzea izango zela.

Arteen eta industrien eta sormen-industrien estatistikaren datuak pandemiaren egoeraren konplexutasunaz erabat jabetuta geundenean bildu ziren (2020ko amaieran eta 2021eko lehen hiruhilekoan), hainbat olatu jasan ondoren eta zailtasun guztiak gorabehera erreakzionatzeko gai ginela ziur geundenean. Azkenean, ikusi dugu **hamar agentetarik bederatzi inguruk egoera berrira egokitu zirela baieztatu zutela**. Egokitu eta jarduerari eusteko gai izan ziren, eta hori oso positiboki baloratu zuen publikoak, proposamenei erantzun baitzien.

Erreakzioak egiaztatu ondoren, sakondu dezagun pandemiaren aurrean hartu zituzten tipologietan.

Pandemiaren aurreko erreakzioak eta jarrerak

6. grafikoa: Pandemiaren aurreko erreakzio eta jarrera motak. Erantzunen %.



→ Behatokiaren enpresa-konfiantzaren panelean parte hartzen duten **agenteen % 50 inguruk erresilientzia**-zantzuak eman dituzte, eta adierazi dute une bakoitzean baldintzek ematen zituzten aukeretara egokitu zirela.


→ **% 40 inguruk baieztatu zuen funtzionamendu normala edo nahiko normala izan zutela**, pandemia gorabehera.

→ Datu negatiboa da **kultura- eta sormen-sektore osoaren % 4 inguru itxi egin behar izan dela edo itxi egingo dela aurreikusten dutela** pandemiaren ondorioz.

* Kontsultatu II. eranskina arteen eta kultura-industrien eta sormen-industrien banakapena ikusteko.

Pandemiaren aurreko erreakzioak eta jarrerak

7. grafikoa: Pandemiaren aurreko erreakzio eta jarrera motak. Erantzunen %. Sektoreen arteko konparazioa.



→ **Kultura** apur bat erresilienteago agertu da sormen-industriak baino.


→ **Sormen-industrietan** negozioaren funtzionamendua egokitu zutenen pisua funtzionamendu nahiko normala izan dutenen pisuaren antzekoa da. **Berritzaileagoak** ere badira; izan ere, agenteen proportzio handiago batek aldatu edo zabaldu du negozio-eredua.

→ Arte eta kultura-industrietan, ia % 8k erabaki zuten egoera normalizatu arte itxarotea, sormen-industrietako % 3ren aldean.

Interesgarria da aztertzea agintariek ezarritako nahitaezko neurriak ez ziren beste zein neurri ezarri zituzten kultura- eta sormen-agenteeek. Beheko grafikoen ikus daitekeenez, estrategia digitala eta zerbitzu, produktu eta prozesuen egokitzapenak, berrikuntzak edo nobedadeak gailendu ziren. **Erreakzionatzeko gaitasun hori**, nahitaezkoa izan arren, **kontuan hartzeko modukoa da**.

Pandemiari aurre egiteko agenteek hartutako neurrien tipologia

8. grafikoa: Neurriak hartu dituzten agenteak (erantzunen %)




→ **Arte eta kultura-industrietan, presentzia eta komunikazio digitala hobetzea** izan zen estrategia nagusia.

→ **Sormen-industrietan, berriz, telelana.**

→ Zerbitzu, produktu edo formatuak **egokitzea eta** lan-prozesuetan edo barne-kudeaketan **berrikuntzak egitea** ere ohiko neurriak izan ziren pandemian.


→ **Hurbileko hornitzaileetara aldatzea** eta beste agente batzuekin **aliantzak bilatzea** izan ziren **gutxien hautatutako aukerak**.

9. grafikoa: "Neurri hori hartu beharko nukeen iraganean" aukeraren erantzunen %




→ **Iraganean hartu beharko ziratekeen** neurrien artean, presentzia eta **komunikazio digitala** hobetzea eta **langileen prestakuntza** hobetzea izan dira gehien bozkatu diren aukerak.

10. grafikoa: "Neurri hori era iraunkorren hartu dut" aukeraren erantzunen %



→ Azkenik, modu iraunkorren hartutako neurrietan bestelakoa da bigarren lekuan dagoena: **arte eta kultura-industrietan zerbitzu, produktu eta formatuak egokitzea** izan zen, eta, aldiz, **langileen prestakuntza hobetzea sormen-industrietan.**

11. grafikoa: "Etorkizunean neurri hori hartuko beharko dut" aukeraren erantzunen %



→ **Etorkizunari begirako hiru lehentasunak** bat datoz era iraunkorrean hartu dituztenen artean hautatueneekin: komunikazio digitala, zerbitzu eta produktuen egokitzapena eta langileen prestakuntza.


→ **Telelana sustatzea eta hurbileko enpresa hornitzaileetara aldatzea dira gutxien baloratutako aukerak**, nahiz eta alde handia dagoen arte eta kultura-industrietako agenteen eta sormen-industrietako agenteen artean.

* Kontsultatu II. eranskina arteen eta kultura-industrien eta sormen-industrien banakapena ikusteko.

4. 2021EKO DIRU-SARREREN ETA JARDUERAREN FAKTORE BALDINTZATZAILEEN AURREIKUSPENEA

2020rako diru-sarreraren aurreikuspena

12. grafikoa: Diru-sarreraren aurreikuspenaren konparazioa, 2019koen aldean. (Agenteen %)




→ Agenteen % 70 inguruk 2020an diru-sarrera gutxiago izatea aurreikusten zuten.


→ Arteen eta kultura-industrien % 20 inguruk eta sormen-industrien ia % 30ek aurreko urtean baino diru-sarrera gehiago izatea espero zuten.

→ Aurreikusitako diru-sarreraren galerak 2019an 106 milioi eurokoak ziren, hau da, agente bakoitzeko 211.000 €. Galera horiek handiagoak dira kultura-agenteen kasuan.

13. grafikoa: 2020ko aurreikuspen negatiboen eta positiboen arteko konparazioa, 2019ko diru-sarreraren aldean. (milioi euro)




14. grafikoa: Galeren eta irabazien arteko aldea eta batezbestekoa (eurotan)



Pandemia hasi zen unean bertan egin zen eta 2020ko maiatzean Kriaren Behatokiaren txostenetan argitaratutako inkestaren arabera, agenteen % 67,5ek inpaktu sakona edo erabatekoa aurreikusten zuten. 12. grafikoa aztertuz gero, ikus dezakegu 2020an galerak izatea aurreikusten zutela % 76 inguruk.

Kontuan izan behar da estatistikan egindako aurreikuspena 2020ko hirugarren hiruhilekoan egin zela, urte amaierako aurreikuspen-datu errealagoekin. Datuek erakusten dutenaren arabera, galerak orokorrak izan ziren arren sektore guztietan, haien azken eragina pandemiaren hasieran esperotakoa baino txikiagoa izan zen (2020ko apirilean sektore osorako % 40,8an zenbatetsi zen). 2020ko itxierako daturik gabe, **2019ko diru-sarrerei dagokienez agenteen galera zenbatetsien aurreikuspena % 13,4koa izan zen**, eta handiagoa izan zen arte eta kultura-industrietan (% 14,5) sormen-industrietan baino (% 12,0).

15. grafikoa: 2019ko diru-sarreraren eta 2020ko zenbatespenaren arteko konparazioa



Agenteak diru-sarreraren (2019) tartean arabera aztertuz gero, ikus dezakegu **aurreikuspen positiboak dituzten agente bakarrak urtean 200.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituztenak direla.**

Gauza bera gertatzen da enpleguarekin: 1-5 langile dituzten agenteek zituzten aurreikuspen ez hain negatiboak 2020an, bereziki sormen-industriek enplegu-geruza bakar horretan eragin positiboa izango zutela aurreikusi zelako. 0-1 enplegu arteko tartean aurreikuspen negatiboak daude, arte eta industrietan izan ezik.

3. taula: Agenteen 2020ko diru-sarreraren aurreikuspena, diru-sarreraren eta enpleguaren tartean arabera. Absolutuak

	GUZTIRA			Arteak eta kultura-industriak			Sormen-industriak		
	Agenteak	Aurreikuspen positiboan eta negatiboan saldoa	Batez-bestekoa	Agenteak	Aurreikuspen positiboan eta negatiboan saldoa	Batez-bestekoa	Agenteak	Aurreikuspen positiboan eta negatiboan saldoa	Batez-bestekoa
Diru-sarrerak									
0 - 100.000	162	16.608.023,9	102.518,7	118	5.564.075,5	47.153,2	44	11.043.948,4	250.998,8
100.001-500.000	197	-5.845.118,8	-29.670,7	102	-4.515.629,4	-44.270,9	95	-1.329.489,5	-13.994,6
500.001-1.000.000	53	-13.652.318,0	-257.590,9	25	-6.939.417,6	-277.576,7	28	-6.712.900,4	-239.746,4
>1.000.000	91	103.698.929,1	-1.139.548,7	38	-59.464.726,3	1.564.861,2	53	-44.234.202,8	-834.607,6
Enpleguak									
0-5 enplegu	352	-4.876.443,3	-13.853,5	223	-1.318.646,2	-5.913,2	129	-3.557.797,1	-27.579,8
>5 enplegu	151	114.745.489,1	-673.588,7	60	-64.037.051,5	1.067.284,2	91	-37.674.847,3	-414.009,3

2021ean **beren jarduera baldintzatuko duten faktoreei dagokienez**, inkestan parte hartu duten agenteek gehien bozkatutako aukera hau da: jarduerari eragiten dioten higienearen eta segurtasunaren arloko osasun-neurrien zorroztasuna; ondoren, pertsona- eta egitura-gastu finkoen pisua, eta hirugarrenik, publikoak ez erantzutea.

Bestalde, digitalizazio-gaitasunik ez izatea eta berrikuntza-gaitasunik ez izatea dira gutxien bozkatutako aukerak. Agenteen tipologia desberdinen haztapenen batezbestekoari erreparatuta, tipologia ezberdinak direla ikus daiteke.

4. taula. 2021ean jarduera baldintzatuko duten faktoreen garrantzia. Garrantziaren haztapenen batezbestekoa (eskala: 1 –txikia–, 5 –handia–)

	GUZTIRA	Arteak eta kultura-industriak	Sormen-industriak
Nire jarduerari eragiten dioten higienearen eta segurtasunaren arloko osasun-neurrien zorroztasuna	3,49	3,93	2,76
Pertsona- eta egitura-gastu finkoen pisua	3,29	3,14	3,52
Publikoak ez erantzutea	3,24	3,10	3,46
Finantzaketa eta likidezia eskuratzeko ezintasuna	2,80	2,83	2,75
Proiektuetarako laguntza publikoak eskuratzeko ezintasuna	2,80	2,83	2,76
Orientazioa eta aholkularitza espezializatua izateko ezintasuna	2,34	2,42	2,20
Digitalizazio-gaitasunik ez izatea	2,12	2,27	1,89
Berrikuntza-gaitasunik ez izatea	2,11	2,20	1,96

*Galdera osoari erantzun dioten agenteen erantzunak soilik hartu dira kontuan.

**Galdera honetan agenteen iruzkinak jasotzeko eremu ireki bat ere sartu zen. Gehienak bat datoz ziurgabetasunari, murrizketei, aurrekontuei, COVID-19aren murrizketei eta ondorioei dagokienez (jarduera bertan behera uztea, bezeroak gutxiago izatea...).

*** Kontsultatu II. eranskina arteen eta kultura-industrien eta sormen-industrien banakapena ikusteko.

Arteen eta kultura-industrien kasuan, aukera kritikoena osasun-neurrien zorroztasunarena da, bereziki arte eszenikoetan eta musikan, 4,16 eta 4,27 lortu baitute, hurrenez hurren. Logikoa da zuzeneko arteek jasatea gehien osasun-neurrien eskakizunak eta protokoloak, jardueraren ezaugarriak kontuan hartuta. Ikus-entzunezko sektorea da, osasun-neurriez gain, gastu finkoen pisuak gehien kezkatzen duena, eta publikoaren erantzunik ezarekin ia berdinduta dago (3,59 eta 3,56, hurrenez hurren). Era berean, sektore horri

eragiten dio gehien finantzaketa (3,14) eta laguntza publikoak (3,08) eskuratzeko. Liburuak haztapen homogeenagoak islatzen ditu faktore guztietan. Arte bisualak ere baldintzatu dituzte osasun-neurriek eta publikoaren erantzunak, nahiz eta puntuazio moderatuagoak dituzten (3,61 eta 3,26, hurrenez hurren).


Aldiz, **sormen-industrietan**, beren lanaren izaera kontuan hartuta, kabinetekoa eta barnekoagoa izanik, **gastu finkoak dira faktore garrantzitsuena**, bereziki altua modan (4,19), eta, gero, publizitatean, arkitekturan eta bideojokoetan. Modaren sektorea eta bideojokoena ikusleen erantzunak ere kezkatzen ditu (4,44 eta 3,94, hurrenez hurren).

Finantzaketa eta likidezia eskuratzeko ezintasuna tarteko posizioetan kokatzen dira modan, publizitatean eta bideojokoetan, eta proiektuetarako laguntza publikoak eskuratzeko ezintasunak batez besteko haztapena lortu du bideojokoetan eta modan.

Jarraian datorren grafikoan ikus daitekeen moduan, 2021ean jarduera baldintzatuko duten faktoreak desberdinak dira erakundearen edo enpresaren diru-sarreraren arabera. Diru-sarrera txikiak zituztenen kasuan (500.000 € arte), uste zuten osasun-neurrien zorrotasunak baldintzatuko zituela, bereziki urtean 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak zituztenek. 500.000 eurotik aurrera, langile- eta egitura-gastu finkoen pisua da haztapen handiena jaso duen faktorea.

Jendeak ez erantzuteak agenteen profil guztiak kezkatzen ditu, eta diru-sarreraren bolumen handiena dutenen artean nabarmentzen da bereziki.


16. grafikoa. Jardueraren faktore baldintzatzaileak, agenteen diru-sarreraren arabera.




Langile gutxien dituzten enpresen kasuan (0-5), gehien nabarmentzen den faktorea higiearen eta segurtasunaren arloko osasun-neurrien zorroztasuna da. Gainerako agenteen artean, langile- eta egitura-gastu finkoen pisua da haztapan handiena duen aukera kasu gehienetan.

Era berean, publikoak ez erantzutea agente guztien kezka-elementua da.

17. grafikoa. Jardueraren faktore baldintzatzaileak, agenteen langile-kopuruaren arabera.



18. grafikoa. Jardueraren faktore baldintzatzaileak, haztapenen zenbatekoaren %.



→ Arte eta kultura-industrietako agenteen % 48 inguruk haztapen handiena eman diote osasun-neurrien zorroztasunari (5). Aldiz, 5eko puntuazioa banatuago dago sormen-industrietan, % 30-31 eman baitiote langile- eta egitura-gastu finkoen pisuari eta publikoak ez erantzuteari.


→ Badirudi digitalizazio- eta berrikuntza-gaitasunik ez izatea ez direla faktore garrantzitsutzat hartzen.

5. ESKARIAREN JOERAK

Kulturaren Euskal Behatokiak kultura-kontsumitzaile izatea ezaugarri duten 203 pertsonako lagin baten ohituren luzetarako jarraipen-panel bat dauka. Datuak biztanleria osora estrapolatzeko aukerarik ematen ez duen arren, kulturaren arloko parte-hartzearen joerak adierazteko tresna eraginkorra dela baieztatzen ari da.


Pandemian egindako azken bi datu-bilketek (2020ko eta 2021eko bigarren sei hilekoei dagozkienak) argi eta garbi erakusten dute COVID-19ak haustura eragin zuela kulturaren arloko parte-hartzearen bilakaera arruntean oro har, eta beherakada hori orokorra dela, nahiz eta aldeak egon parte hartzeko moduaren arabera.

19. grafikoa. Parte-hartze mailen bilakaera 2. eta 8. datu-bilketen artean



Inpaktu negatiboena parte-hartze hartzailearen jarduerak jasan zuten, zuzeneko kulturarekin eta zinema-aretoetara, museoetara, eta abarretara bertaratzearekin lotuta daudenek, erdira baino gehiagora murriztu baitziren. Aitzitik, jarduera digitalek eta praktika artistiko amateurrek konpentsazio txiki bat eragin zuten. Azken aldiko bilakaeran ikus daitekeenez, 2021eko bigarren sei hilekokoan, **parte-hartze hartzaileko jardueretan susperraldia gertatzen hasi da, baina hori bai, oso txikia da**, pandemiaren aurreko mailetatik urrun baikaude oraindik. Aldiz, **behera egin dute jarduera digitalek** (oraindik pandemiaren aurreko azken datua baino zertxobait gorago mantentzen badira ere) **eta praktika artistiko amateurrek** (pandemiaren aurreko mailen azpitik eta guzti daude). Jarduera horiek gorakada izan zuten 2020an. 8. datu-bilketari dagokionez, kontuan hartu behar da egoera pandemikoak kultura-agenda markatzen jarraitu duela (edukiera, mugikortasun eta ordutegi mugak...), eta **ez dela normaltasuna erabat berreskuratu**. Nolanahi ere, **pandemiaren aurreko ohiko egoerara itzultzeko joera hautematen da**, non parte-hartze digitala jada handitzen eta zentraltasuna irabazten ari zen.

20. grafikoa. Parte-hartze kulturalaren modu bakoitzaren banaketa datu-bilketa bakoitzean (%)



6. AZKEN GOGOETAK

Kultura izan da pandemia eusteko neurrien eragina gehien jasan duten sektoreetako bat, bereziki zuzeneko kultura. Pandemiari eusteko jarraibideek ikuskizun baten funtsari eragiten diote, baita haren zentzuari ere; hortaz, edukiera, ordutegi, distantzia eta mugikortasunari buruzko arauak inpaktu handia izan dute horien garapenean bi urteotan. Nolanahi ere, administrazio guztiek berehalako hainbat neurri jarri zituzten abian pandemiaren inpaktua arintzeko. Laguntza horien ezaugarriak erantzun azkarra izatea eta talka-plan horietarako partiden zenbatekoa izan ziren. Laguntza aringarriez gainera, kontratazioen bidez jarduera sustatzera bideratutako laguntzek bereziki eragin zioten tokiko agente txikienei.

Jakina denez, hondoko arazoetako bat izan zen kultura- eta sormen-ehunaren zati garrantzitsu bat laguntzen gerizpean geratu zela, eta agerian geratu zela sektoreko lan- eta egitura-baldintzak hobetzeko premia. Administrazio publikoek konpromisoa hartu dute kultura- eta sormen-arloko lanaren eta jardueren araudia kolektibo horien errealitatera egokitzeko.

Sektorearen erreakzioetan murgilduta, kultura- eta sormen-ehunak martxan jarri behar izan zuen murrizketa handieneko garaietan bere jarduerari gutxieneko mailan behintzat eusteko eta deseskalatzea hasi zenean pixkanaka suspertzeko. Arteetako eta kultura-industrietako agenteen % 90ek baino gehiagok neurriak ezarri behar izan zituzten egokitzeko, dela inpaktua arinduz baldintza berrietara egokituta, dela jarduera berraktibatuz bitarteko digitalera eramanda, dela aldaketak eginez proposamenen espazio eta formatuetan, dela berrikuntza muturrekoagoak eginez. Erreakzioak agenteen jarduera motaren arabera izan ziren, (alde argia dago jarduera kulturalaren eta sortzailearen artean), bai eta tamainaren arabera ere. Hori horrela, arte eta kultura-industrietako artean, oro har era batera edo bestera egokitu baziren ere, diru-sarreraren bolumen txikiena zutenek erreakzionatzeko gaitasun gutxiago izan zutela ematen du. Sormen-industrietan egokitzapen-ehunekoak txikiagoak dira. Erakundeek eginiko ahaleginak ekarritako ikaskuntza azpimarratu behar da. Hala ere, sektorearen % 4 inguruk itxi egin behar izan du, edo ixtear dago.

2020ko diru-sarreraren aurreikuspenari dagokionez, nabarmendu behar da ez direla krisiaren hasieran eginiko aurreikuspenak bezain negatiboak: 2019ko diru-sarrerak baino % 13,4 gutxiago irabaztea aurreikusten da, eta eragin handiagoa du arte eta kultura-industrietan sormen-industrietan baino.

Kultura- eta sormen-ehunak erresilientzia- eta berrikuntza-gaitasuna erakutsi du bi urteotan. Pandemiaren etaparen ikaskuntza behartu eta trinkoak garapen potentziala duen dinamika bat sortu du arlo digitalean eta zerbitzu, prozesu, produktu edo formatu berrien diseinuan. Hain zuzen ere, agenteek adierazi dute etorkizunera begira dituzten lehentasunak ildo horretan joango direla, langileen prestakuntza gauzatzearekin batera. Aitzitik, hurbileko hornitzaileak edo aliantzak bilatzea ez da hain interesgarria izan. Erne egon beharko dugu datozen urteetan arlo horietan sortuko diren beharrizanei.

Beste gai erabakigarrietako bat publikoaren erantzuna da. Alderdi horrek agente-profil guztiak kezkatzen ditu. Badakigu erreakzioak positiboak izan zirela pandemian bizitako salbuespenezko egoeran. Kulturako parte-hartzearen hasierako datuek parte-hartze hartzailearen nolabaiteko susperraldirako joera dagoela adierazten dute, baina krisiaren aurreko mailetatik urrun oraindik. Alabaina, parte-hartze digitalean murrizketa handieneko garaian bizitako booma murrizten ari da, praktika amateurren antzera. Nolanahi ere, pandemiaren aurreko ohiko egoerara itzultzeko joera hautematen da, non parte-hartze digitala jada handitzen eta zentraltasuna irabazten ari zen. Kontuan hartu behar da egoera pandemikoak kultura-agenda markatzen jarraitu duela oso gutxira arte, eta ez dela normaltasuna erabat berreskuratu. 2022ko bigarren hiruhilekoko sentrazioa zera da, kultura-eskaintza izugarria dela, publikoak kulturaz gozatzeko beharra duela, bereziki kalean, baina proposamen asko daudenez, guztiek ezingo dutela behar adina publiko erakarri.

Kulturaren Euskal Behatokia dinamika eta joera horiei adi egongo da. Horretarako, sektoreko zein gastu publikoko estatistika erregularrak baliatuko ditu. 2020ko gastu publikoari eta 2021eko arte eta industriei eta sormen-industriei buruzko estatistikek eta 2023ko parte-hartze kulturalari buruzko etorkizuneko estatistikak pistak emango dituzte pandemiaren osteko egoeraren jarraipena egiteko, eta aukera emango dute bizitzea tokatu zaigun salbuespenezko egoera horren benetako eragina neurtzeko.

7. I. ERANSKINA: METODOLOGIA

Arteen eta Industrien eta Sormen-industrien estatistika

Galdera: "Zure erakundearen/enpresaren jarduera egokitu al duzu COVID-19agatik?"

Lehenengo galderak ("Zure erakundearen/enpresaren jarduera egokitu al duzu COVID-19agatik?") (13. eranskina) aukera ematen die erabiltzaileei aukera bat baino gehiago hautatzeko. Horri esker, datuak irudikatzeko bi aukera daude: bata, erantzun guztiekiko, eta bestea, erantzun duten agenteen guztiekiko. Kasu bakoitzean bi formuletakoz zein erabili den adieraziko da.

Parte-hartzea:

5. taula. Inkestan parte hartu duten agenteen, erantzun dutenen, eta erantzunen mailen zerrenda.

			Parte-hartzaileak	Erantzun dutenak	Erantzun-maila (%)
Guztira			1.055	705	66,8
Arteak eta kultura-industriak			701	443	63,2
	Arte eszenikoak		239	160	66,9
	Arte bisualak		64	39	60,9
	Ikus-entzunezkoak		129	83	64,3
	Liburuak		119	63	52,9
	Musika		150	98	65,3
Sormen-industriak			354	262	74,0
	Arkitektura		63	48	76,2
	Diseinua		55	41	74,5
	Hizkuntzaren industriak		61	52	85,2
	Moda		33	16	48,5
	Publizitatea		123	88	71,5
	Bideojokoak		19	17	89,5

Galdera: "Adierazi zein diru-sarreraren aurreikuspen duen zure erakundeak/enpresak 2020rako"

Galdera horretan agenteei eskatu zitzaion 2020ko diru-sarreraren aurreikuspena egiteko, COVID-19aren pandemiaren krisiak eraginda bizitzen ari ginen egoera kontuan izanda (13. eranskina).

2019an agente horiek berberak emandako diru-sarrera errealei buruzko informazioa bagenuenez, galerei edo irabaziei buruzko konparazioa egin ahal izan dugu.

Parte-hartzea:

6. taula. Inkestan parte hartu duten agenteen, erantzun dutenen, eta erantzunen mailen zerrenda.

			Parte-hartzaileak	Erantzun dutenak	Erantzun-maila (%)
Guztira			1055	503	47,6
Arteak eta kultura-industriak			701	283	40,3
	Arte eszenikoak		239	111	46,4
	Arte bisualak		64	20	31,3
	Ikus-entzunezkoak		129	57	44,2
	Liburuak		119	44	37,0
	Musika		150	51	34,0
Sormen-industriak			354	220	62,1
	Arkitektura		63	39	61,9
	Diseinua		55	36	65,5
	Hizkuntzaren industriak		61	47	77,0
	Moda		33	12	36,4
	Publizitatea		123	73	59,3
	Bideojokoak		19	13	68,4

Galdera: "Baloratu 2021ean zure jardura baldintzatu zuten faktore hauen garrantzia, 1-5 arteko eskalan (1 garrantzia txikia izanik eta 5 garrantzia handia izanik)"

Garrantzia baloratzeari buruzko galdera agenteek 2021ean beren jardura baldintzatu zuten faktoreei 1-5 puntu artean ematea zetzan (13. eranskina).

Informazioa ateratzeko, bi balio mota hartu dira kontuan: batetik, inkesta osoari erantzun dioten agenteen batezbestekoaren kalkulua faktore bakoitzerako, eta, bestetik, haztapenaren balio bakoitzeko zenbaketa bat eta inkesta osoari erantzun dioten agenteen kopuruaren gaineko ehunekoa.

Datu horiei erreparatuta, faktore bozkatuena zein den ikus dezakegu, eta, bestetik, zein den puntuazio handienarekin haztatua izan dena.

Parte-hartzaileak:

7. taula. Inkestan parte hartu duten agenteen, erantzun dutenen, eta erantzunen mailen zerrenda.

			Parte-hartzaileak	Erantzun dutenak (guztira)	Erantzun-maila (%)
Guztira			1.055	634	60,1
Arteak eta kultura-industriak			701	394	56,2
	Arte eszenikoak		239	147	61,5
	Arte bisualak		64	31	48,4
	Ikus-entzunezkoak		129	73	56,6
	Liburuak		119	54	45,4
	Musika		150	89	59,3
Sormen-industriak			354	240	67,8
	Arkitektura		63	45	71,4
	Diseinua		55	37	67,3
	Hizkuntzaren industriak		61	46	75,4
	Moda		33	16	48,5
	Publizitatea		123	79	64,2
	Bideojokoak		19	17	89,5

“Enpresa-konfiantzaren adierazleak” inkesta

Enpresa-konfiantzaren adierazleei buruz urtero egiten den inkestaren barruan, COVID-19aren pandemiak eragindako egoerari buruzko pare bat galdera sartu dira (14. eranskina). Horietan, pandemian izandako egoera zein den galdetu zaie, eta zer neurri hartu zituzten.

Zehazki, galderak hauek izan ziren:

- Baieztapen hauetako zeinek islatzen du ondoen zure egoera pandemiaren inguruabarren aurrean?
- Zehazki, hartu al duzu, uste duzu etorkizunean hartu beharko duzula edo uste duzu iraganean hartu behar zenuela alderdi hauei buruzko neurririk? Neurria hartu baduzu edo etorkizunean hartuko baduzu, iraunkorra izango al da?

Inkestan, guztira, 139 agentek hartu zuten parte, 68 arte eta kultura-industrietakoak eta 71 sormen-industrietakoak.

8. taula. Inkestan parte hartu zuten agenteen zerrenda.

			Parte-hartzaileak
Guztira			139
Arteak eta kultura-industriak			68
	Arte eszenikoak		13
	Arte bisualak		6
	Ikus-entzunezkoak		12
	Liburuak		18
	Musika		19
Sormen-industriak			71
	Arkitektura		12
	Diseinua		11
	Hizkuntzaren industriak		14
	Moda		6
	Publizitatea		24
	Bideojokoak		4

8. II. ERANSKINA: EMAITZA XEHATUAK

9. taula. "Zure erakundearen/enpresaren jarduera egokitu al duzu COVID-19agatik?" galderari arteetako eta kultura-industrietako agenteek emandako erantzunen konparazioa. Galderari erantzun dioten mota bakoitzeko agenteen kopuruaren gaineko %

	GUZTIRA	Arte eszenikoak	Arte bisualak	Liburu-industria	Musika	Ikus-entzunezkoak
Bai, langileen segurtasun- eta higiene-protokoloak betetzeko nahitaezkoak	81,3	83,8	76,9	73,0	85,7	79,5
Bai, bezeroen segurtasun- eta higiene-protokoloak betetzeko nahitaezkoak	76,3	76,9	87,2	68,3	85,7	65,1
Bai, egokitzapen digitala	34,8	33,8	35,9	23,8	36,7	42,2
Bai, produktua egokitzea	34,3	43,8	20,5	19,0	41,8	25,3
Bai, jarduera mota aldatzea (lehen egiten ez nituen edo ez hain sarri egiten nituen jarduerak egiten ditut orain)	22,1	26,3	10,3	19,0	25,5	18,1
Beste batzuk	7,0	8,1	2,6	6,3	7,1	7,2
Ez, ez da beharrezkoa izan	5,9	3,1	2,6	12,7	2,0	12,0
Ez, ezin da egokitzapen nabarmenik egin nire jardueran	2,7	1,9	0,0	1,6	5,1	3,6
Ez, ez daukat nahikoa baliabiderik egokitzapenak egiteko	1,1	0,6	0,0	3,2	2,0	0,0

10. taula. "Zure erakundearen/enpresaren jarduera egokitu al duzu COVID-19agatik?" galderari sormen-industrietako agenteek emandako erantzunen konparazioa. Galderari erantzun dioten mota bakoitzeko agenteen kopuruaren gaineko %

	GUZTIRA	Arkitektura	Diseinua	Hizkuntzaren industriak	Moda	Publizitatea	Bideojokoak
Bai, langileen segurtasun- eta higiene-protokoloak betetzeko nahitaezkoak	74,0	83,3	63,4	63,5	93,8	77,3	70,6
Bai, bezeroen segurtasun- eta higiene-protokoloak betetzeko nahitaezkoak	59,9	70,8	58,5	42,3	75,0	65,9	41,2
Bai, egokitzapen digitala	38,9	33,3	24,4	46,2	31,3	45,5	41,2
Bai, produktua egokitzea	15,3	4,2	17,1	11,5	31,3	17,0	29,4
Ez, ez da beharrezkoa izan	10,7	6,3	14,6	19,2	0,0	8,0	11,8
Bai, jarduera mota aldatzea (lehen egiten ez nituen edo ez hain sarri egiten nituen jarduerak egiten ditut orain)	8,4	6,3	4,9	5,8	6,3	11,4	17,6
Beste batzuk	8,0	2,1	4,9	15,4	6,3	8,0	11,8
Ez, ezin da egokitzapen nabarmenik egin nire jardueran	5,0	2,1	9,8	7,7	6,3	2,3	5,9
Ez, ez daukat nahikoa baliabiderik egokitzapenak egiteko	0,8	2,1	0,0	1,9	0,0	0,0	0,0

11. taula. "Baieztapen hauetako zeinek islatzen du ondoen zure egoera pandemiaren inguruabarren aurrean?" galderaren erantzunen %-aren gaineko arteetako eta kultura-industrietako agenteen konparazioa

	GUZTIRA	Arte eszenikoak	Arte bisualak	Ikus-entzunezkoak	Liburuak	Musika
Negozioaren funtzionamendua une bakoitzeko baldintzek ematen zuten aukeretara egokitu dut	50,0	53,8	83,3	40,0	22,2	68,4
Funtzionamendu normalari edo nahiko formalari eutsi diot, pandemiaren baldintzak gorabehera	34,8	23,1	0,0	60,0	55,6	21,1
Murrizketak aldakorrak izan arren, egoera normalizatu arte itzarotea erabaki dut nire jarduera gauzatzeko, baina gutxieneko funtzionamendu-mailari eutsita	7,6	15,4	16,7	0,0	5,6	5,3
Negozioa itxi behar izan dut edo aurreikusten dut laster itxi beharko dudala	4,5	0,0	0,0	0,0	11,1	5,3
Negozio-eredua aldatu dut zerbitzu, produktu edo formatu berrieekin	3,0	7,7	0,0	0,0	5,6	0,0

12. taula. "Baieztapen hauetako zeinek islatzen du ondoen zure egoera pandemiaren inguruabarren aurrean?" galderaren erantzunen %-aren gaineko sormen-industrietako agenteen konparazioa

	GUZTIRA	Arkitektura	Diseinua	Hizkuntzaren industriak	Moda	Publizitatea	Bideojokoak
Negozioaren funtzionamendua une bakoitzeko baldintzek ematen zuten aukeretara egokitu dut	45,1	33,3	45,5	21,4	83,3	58,3	25,0
Funtzionamendu normalari edo nahiko formalari eutsi diot, pandemiaren baldintzak gorabehera	42,3	66,7	54,5	50,0	0,0	33,3	25,0
Negozio-eredua aldatu dut zerbitzu, produktu edo formatu berriekin	7,0	0,0	0,0	14,3	0,0	8,3	25,0
Murrizketak aldakorrak izan arren, egoera normalizatu arte itzarotea erabaki dut nire jarduera gauzatzeko, baina gutxieneko funtzionamendu-mailari eutsita	2,8	0,0	0,0	7,1	16,7	0,0	0,0
Negozioa itxi behar izan dut edo aurreikusten dut laster itxi beharko dudala	2,8	0,0	0,0	7,1	0,0	0,0	25,0

13. taula. Arteen eta kultura-industrietako agenteen konparazioa galdera honen erantzunen %-aren gainean: "Zehazki, hartu al duzu alderdi hauei buruzko neurririk edo uste duzu etorkizunean hartu beharko duzula edo iraganean hartu behar zenukeela? Neurria hartu baduzu edo etorkizunean hartuko baduzu, iraunkorra izango al da?"

		GUZTIRA	Arte eszenikoak	Arte bisualak	Ikus- entzunezkoak	Liburuak	Musika
Telelana sustatzea	Neurria hartu du	50,0	↑ 61,5	↓ 33,3	↑ 66,7	↓ 33,3	↑ 52,6
	Etorkizunean neurria hartu beharko du	30,9	↓ 30,8	↑ 50,0	↑ 58,3	↓ 5,6	↑ 31,6
	Neurri hori hartu beharko nukeen iraganean	13,2	↑ 15,4	↑ 33,3	↑ 16,7	↓ 0,0	↑ 15,8
	Neurria era iraunkorrean hartu du	30,9	↓ 30,8	↑ 50,0	↑ 33,3	↓ 11,1	↑ 42,1
Presentzia eta komunikazio digitala hobetzea	Neurria hartu du	73,5	↓ 61,5	↑ 83,3	↓ 50,0	↑ 94,4	↑ 73,7
	Etorkizunean neurria hartu beharko du	73,5	↑ 76,9	↑ 83,3	↓ 41,7	↑ 77,8	↑ 84,2
	Neurri hori hartu beharko nukeen iraganean	51,5	↑ 61,5	↑ 66,7	↓ 16,7	↑ 55,6	↑ 57,9
	Neurria era iraunkorrean hartu du	80,9	↓ 76,9	↑ 83,3	↓ 41,7	↑ 100,0	↓ 89,5
Hurbileko enpresa Hornitzaileetara aldatzea	Neurria hartu du	19,1	↓ 15,4	↓ 0,0	↓ 8,3	↑ 38,9	↓ 15,8
	Etorkizunean neurria hartu beharko du	14,7	↑ 15,4	↑ 16,7	↑ 16,7	↑ 16,7	↓ 10,5
	Neurri hori hartu beharko nukeen iraganean	10,3	↓ 7,7	↑ 16,7	↓ 8,3	↑ 22,2	↓ 0,0
	Neurria era iraunkorrean hartu du	22,1	↓ 15,4	↓ 16,7	↓ 16,7	↑ 33,3	↑ 21,1
Zerbitzuak, produktuak edo formatuak egokitzea	Neurria hartu du	67,6	↑ 76,9	↓ 66,7	↓ 33,3	↓ 61,1	↑ 89,5
	Etorkizunean neurria hartu beharko du	72,1	↑ 84,6	↑ 83,3	↓ 50,0	↓ 50,0	↑ 94,7
	Neurri hori hartu beharko nukeen iraganean	32,4	↓ 23,1	↑ 50,0	↓ 16,7	↑ 33,3	↑ 42,1
	Neurria era iraunkorrean hartu du	70,6	↑ 84,6	↓ 50,0	↓ 41,7	↓ 66,7	↑ 89,5
Zerbitzu, produktu edo formatu berriak garatzea	Neurria hartu du	55,9	↑ 61,5	↓ 16,7	↓ 41,7	↓ 50,0	↑ 78,9
	Etorkizunean neurria hartu beharko du	60,3	↑ 76,9	↓ 50,0	↓ 33,3	↓ 44,4	↑ 84,2
	Neurri hori hartu beharko nukeen iraganean	32,4	↑ 38,5	↑ 33,3	↓ 25,0	↓ 27,8	↑ 36,8
	Neurria era iraunkorrean hartu du	32,4	↑ 38,5	↑ 33,3	↓ 25,0	↓ 27,8	↑ 36,8
Lan-prozesuetan edo barne- kudeaketan berrikuntzak egitea	Neurria hartu du	58,8	↓ 46,2	↑ 66,7	↓ 16,7	↑ 72,2	↑ 78,9
	Etorkizunean neurria hartu beharko du	61,8	↑ 69,2	↑ 83,3	↓ 25,0	↓ 44,4	↑ 89,5
	Neurri hori hartu beharko nukeen iraganean	32,4	↑ 46,2	↑ 66,7	↓ 16,7	↓ 22,2	↓ 31,6
	Neurria era iraunkorrean hartu du	32,4	↑ 46,2	↑ 66,7	↓ 16,7	↓ 22,2	↓ 31,6
Langileen prestakuntza hobetzea	Neurria hartu du	51,5	↓ 38,5	↓ 33,3	↓ 16,7	↑ 72,2	↑ 68,4
	Etorkizunean neurria hartu beharko du	63,2	↑ 76,9	↓ 50,0	↓ 33,3	↓ 61,1	↑ 78,9
	Neurri hori hartu beharko nukeen iraganean	39,7	↑ 53,8	↓ 33,3	↓ 25,0	↓ 27,8	↑ 52,6
	Neurria era iraunkorrean hartu du	58,8	↑ 69,2	↓ 50,0	↓ 25,0	↑ 61,1	↑ 73,7
Aliantzak bilatzea Edo finkatzea beste agente batzuekin	Neurria hartu du	42,6	↑ 61,5	↑ 66,7	↓ 16,7	↑ 50,0	↓ 31,6
	Etorkizunean neurria hartu beharko du	55,9	↑ 69,2	↑ 83,3	↓ 25,0	↑ 61,1	↓ 52,6
	Neurri hori hartu beharko nukeen iraganean	29,4	↑ 38,5	↑ 50,0	↓ 25,0	↓ 27,8	↓ 21,1
	Neurria era iraunkorrean hartu du	45,6	↑ 53,8	↑ 66,7	↓ 16,7	↓ 44,4	↑ 52,6

14. taula. Sormen-industrietako agenteen konparazioa galdera honen erantzunen %-aren gainean: "Zehazki, hartu al duzu alderdi hauei buruzko neurririk edo uste duzu etorkizunean hartu beharko duzula edo iraganean hartu behar zenukeela? Neurria hartu baduzu edo etorkizunean hartuko baduzu, iraunkorra izango al da?"

		GUZTIRA	Arkitektura	Diseinua	Hizkuntzaren industriak	Moda	Publizitatea	Bideojokoak
Telelana sustatzea	Neurria hartu du	76,1	↑ 91,7	↓ 63,6	↑ 85,7	↓ 50,0	↓ 75,0	↓ 75,0
	Etorkizunean neurria hartu beharko du	50,7	↑ 58,3	↓ 45,5	↑ 71,4	↓ 0,0	↓ 50,0	↓ 50,0
	Neurri hori hartu beharko nukeen iraganean	25,4	↓ 16,7	↓ 18,2	↑ 42,9	↑ 33,3	↓ 20,8	↓ 25,0
	Neurria era iraunkorrean hartu du	50,7	↓ 50,0	↓ 45,5	↑ 71,4	↓ 0,0	↑ 54,2	↓ 50,0
Presentzia eta komunikazio digitala hobetzea	Neurria hartu du	74,6	↑ 83,3	↑ 81,8	↑ 78,6	↑ 83,3	↓ 70,8	↓ 25,0
	Etorkizunean neurria hartu beharko du	71,8	↑ 83,3	↓ 63,6	↓ 64,3	↑ 83,3	↑ 79,2	↓ 25,0
	Neurri hori hartu beharko nukeen iraganean	46,5	↓ 33,3	↓ 45,5	↑ 57,1	↑ 50,0	↑ 50,0	↓ 25,0
	Neurria era iraunkorrean hartu du	64,8	↓ 58,3	↑ 81,8	↓ 64,3	↑ 83,3	↓ 62,5	↓ 25,0
Hurbileko enpresa Hornitzaileetara aldatzea	Neurria hartu du	16,9	↓ 8,3	↑ 18,2	↑ 21,4	↑ 33,3	↓ 16,7	↓ 0,0
	Etorkizunean neurria hartu beharko du	23,9	↓ 8,3	↑ 27,3	↑ 28,6	↓ 16,7	↑ 29,2	↑ 25,0
	Neurri hori hartu beharko nukeen iraganean	14,1	↓ 8,3	↑ 18,2	↑ 14,3	↑ 16,7	↓ 12,5	↑ 25,0
	Neurria era iraunkorrean hartu du	21,1	↓ 8,3	↑ 27,3	↑ 21,4	↓ 16,7	↑ 25,0	↑ 25,0
Zerbitzuak, produktuak edo formatuak egokitzea	Neurria hartu du	54,9	↓ 33,3	↑ 63,6	↓ 42,9	↑ 66,7	↑ 70,8	↓ 25,0
	Etorkizunean neurria hartu beharko du	60,6	↓ 50,0	↑ 90,9	↓ 50,0	↑ 66,7	↓ 58,3	↓ 50,0
	Neurri hori hartu beharko nukeen iraganean	35,2	↓ 16,7	↑ 36,4	↑ 35,7	↓ 16,7	↑ 45,8	↑ 50,0
	Neurria era iraunkorrean hartu du	54,9	↓ 25,0	↑ 81,8	↓ 50,0	↓ 33,3	↑ 66,7	↓ 50,0
Zerbitzu, produktu edo formatu berriak garatzea	Neurria hartu du	47,9	↓ 16,7	↑ 63,6	↓ 42,9	↑ 66,7	↑ 54,2	↑ 50,0
	Etorkizunean neurria hartu beharko du	52,1	↓ 50,0	↑ 72,7	↓ 35,7	↓ 33,3	↑ 58,3	↓ 50,0
	Neurri hori hartu beharko nukeen iraganean	36,6	↓ 16,7	↓ 36,4	↓ 35,7	↓ 0,0	↑ 54,2	↑ 50,0
	Neurria era iraunkorrean hartu du	47,9	↓ 16,7	↑ 81,8	↓ 35,7	↑ 50,0	↑ 54,2	↑ 50,0
Lan-prozesuetan edo barne-kudeaketan berrikuntzak egitea	Neurria hartu du	50,7	↓ 41,7	↓ 45,5	↑ 57,1	↓ 50,0	↑ 54,2	↓ 50,0
	Etorkizunean neurria hartu beharko du	62,0	↓ 50,0	↑ 72,7	↑ 64,3	↑ 66,7	↑ 62,5	↓ 50,0
	Neurri hori hartu beharko nukeen iraganean	47,9	↓ 41,7	↑ 54,5	↑ 50,0	↓ 33,3	↑ 54,2	↓ 25,0
	Neurria era iraunkorrean hartu du	54,9	↓ 33,3	↑ 72,7	↑ 64,3	↓ 50,0	↓ 54,2	↓ 50,0
Langileen prestakuntza hobetzea	Neurria hartu du	50,7	↓ 50,0	↓ 36,4	↑ 57,1	↓ 50,0	↑ 54,2	↓ 50,0
	Etorkizunean neurria hartu beharko du	69,0	↑ 91,7	↓ 63,6	↓ 64,3	↓ 66,7	↓ 66,7	↓ 50,0
	Neurri hori hartu beharko nukeen iraganean	36,6	↓ 25,0	↑ 45,5	↑ 42,9	↓ 33,3	↑ 37,5	↓ 25,0
	Neurria era iraunkorrean hartu du	62,0	↑ 66,7	↑ 63,6	↓ 57,1	↓ 50,0	↑ 66,7	↓ 50,0
Aliantzak bilatzea edo finkatzea beste agente batzuekin	Neurria hartu du	42,3	↓ 33,3	↑ 72,7	↑ 42,9	↓ 33,3	↓ 41,7	↓ 0,0
	Etorkizunean neurria hartu beharko du	57,7	↑ 58,3	↑ 72,7	↓ 42,9	↓ 50,0	↑ 62,5	↓ 50,0
	Neurri hori hartu beharko nukeen iraganean	32,4	↓ 25,0	↑ 45,5	↑ 35,7	↓ 16,7	↑ 33,3	↓ 25,0
	Neurria era iraunkorrean hartu du	46,5	↓ 25,0	↑ 72,7	↓ 35,7	↑ 50,0	↑ 54,2	↓ 25,0

15. taula. Arteen eta kultura-industrietako agenteen konparazioa, galdera hau osorik erantzun duten agenteen haztapenen batezbestekoarekiko: Baloratu 2021ean zure jarduera baldintzatuko duten faktoreen garrantzia 1-5 arteko eskalan (1 – garrantzi txikia-, 5 –garrantzi handia-).

	GUZTIRA	Arte eszenikoak	Liburuak	Musika	Arte bisualak	Ikus- entzunezkoak
Nire jarduerari eragiten dioten higienearen eta segurtasunaren arloko osasun-neurrien zorrozatasuna	3,93	4,16	3,06	4,27	3,61	3,85
Pertsona- eta egitura-gastu finioen pisua	3,14	3,15	3,04	2,88	3,03	3,59
Publikoak ez erantzutea	3,10	2,96	3,02	2,93	3,26	3,56
Finantzaketa eta likidezia eskuratzeko ezintasuna	2,83	2,90	2,57	2,60	2,94	3,14
Proiektuetarako laguntza publikoak eskuratzeko ezintasuna	2,83	2,84	2,83	2,60	2,81	3,08
Orientazioa eta aholkularitza espezializatua izateko ezintasuna	2,42	2,47	2,35	2,36	2,65	2,37
Digitalizazio-gaitasunik ez izatea	2,27	2,41	2,43	2,10	2,39	2,01
Berrikuntza-gaitasunik ez izatea	2,20	2,18	2,43	2,13	2,42	2,04

16. taula. Sormen-industrietako agenteen konparazioa, galdera hau osorik erantzun duten agenteen haztapenen batezbestekoarekiko: Baloratu 2021ean zure jarduera baldintzatuko duten faktoreen garrantzia 1-5 arteko eskalan (1 – garrantzi txikia–, 5 –garrantzi handia–).

	GUZTIRA	Arkitektura	Diseinua	Hizkuntzaren industriak	Moda	Publizitatea	Bideojokoak
Pertsona- eta egitura-gastu finkoen pisua	3,52	3,49	3,11	3,17	4,19	3,80	3,47
Publikoak ez erantzutea	3,46	3,40	3,11	2,89	4,44	3,70	3,94
Nire jarduerari eragiten dioten higiearen eta segurtasunaren arloko osasun-neurrien zorroztasuna	2,76	3,00	2,35	2,59	3,69	2,78	2,47
Proiektuetarako laguntza publikoak eskuratzeko ezintasuna	2,76	2,64	2,49	2,59	3,06	2,89	3,24
Finantzaketa eta likidezia eskuratzeko ezintasuna	2,75	2,51	2,46	2,39	3,25	3,00	3,35
Orientazioa eta aholkularitza espezializatua izateko ezintasuna	2,20	1,96	2,30	2,00	2,31	2,27	2,76
Berrikuntza-gaitasunik ez izatea	1,96	2,00	1,76	1,78	2,25	2,05	2,12
Digitalizazio-gaitasunik ez izatea	1,89	2,02	1,62	1,67	2,44	1,87	2,24